

IZADIA'RI ITZALA

Neure semien baratzea Lemoniz'etik zazpi aneineurki aldenduta dago. Ango Zentral Nuklearra lazter asiko eida ibiltzen.

Bildurra? Ezba; ikusiko dogu. Neure ustez belbillak dirala ta urtian datozan ain beste eriotza, eztau beinguan ekarriko. Nok dauko bildurra belbilla artzeko igandietan uri nagusitik iges egiteko? Aurrerakuntza bearrezkoa da.

* * *

Gizadiaren onerako ala galtzerako egin da ikaragarriko ola andi ori? Nik ez dakit.

Milla aldiz milloiak eralgi dira bera eregiten.

Beste aldetik, gomuta biar dogu, aurrerapen guztiak euren asi-aldian, beti izan dabezala arerio amorrotuak: Lurrin-indarrak Fulton'en denporan; tximistargiak Edison'n en aldian. Orregaitik nik ezdot ezer esango Nuklearratzaz.

Baiña gauza bat argi ikusten dot: Milla aldiz milloi orrek eralgi dira Izadiaren aurka.

* * *

Geure Euzkadi'ren baster polit-polita ondatu dabe.

Atxen artean umeak ezdabe karramarrik ar'apeuko, nagusiak zugatzen gerizpean erdi lo gagozan artean txorien eresia entzuten.

Ango bazterrean edertasuna ta poza betiko joan jakuz.

Eta geure biotzean itzi dausku, nola edo alan Izadiari lagunduteko gogua.

* * *

Adibiderako edestuko dautzuet geure baratzean jazo dana:

Ingurututen daun esia, neure semia artazi andiaz palaxatuten eguan. Bat batez ikusten dau abi anditxu bat: Zozuen abia. Lar ebagi dauz adarrak bere aurrian. Orain agirian dago abia. Etorriko ete dira zozuak bertara, ala ondatu dogu bere abia, betiko?

Ba datoz bai ondiño. Orain gu gara andik urrinduten garonak.

Egun bi igaro dira. Ikusi dogu zozo baltza andik urten dala, eta arnasa geldi-erazota, ez izteko an lagunen usaña, urreratu ta... ba-dagoz bertan arrautz bi.

Orain zozua da angorege. Gu ez gara igaroten andik.

Umeak goiko aldean bakarrik olgetan egoten diru; ta etxetik urteteko beste bidea ta beste atea artzen doguz.

Zozo erregea, bakean eta zorionean azi zeure umeak!

GOMUTAGARRIAK

*Zegaitik ez oroitu
gudarien gurenda?
Azpiazu'tar Iñaki'k
dan-dana edestu eustan.*

* * *

*Geure guda galduta,
ez biotzen kemenak
iritzi eben gaztiak
jarraitu, dala onena.*

* * *

*Doixtarrak, geure aurka
(Gernika eztozu aiztuten)
ekin dabe luzaro,
Aberria ondatuten.*

* * *

*Ba duaz, ba, Bretaina'n
Ikurriñan atzian,
doixtarren blokus artzen:
Agertzen da an, aurrian.*

* * *

*Bultz-bidetik aurrera,
ezer ez estaltzeko,
erraza da etsaientzat
talde osua birrindu.*

* * *

*Abade eurekaz dauke.
Autortu ta Jaunartu
egin dabe geyenak.
Ilteko trankil dagoz
ta ba duaz aurrera.*

* * *

*Iñaki jauna dabil
batzutan lenengoaz,
arrisku nagusian;
beste batzutan, barriz,
epelak adoretzen
geratzen dala, atzian.*

* * *

*Zegaitik ez, doixtarrak
eztabe danak erail
metralletan boladaz?*

* * *

*Ikusi dabelako
datozala gixonak
bulartsu-biotzdunak.
Euren menpian, ziur,
egongo dira obe,
frantzez azpian baño.*

* * *

*Leyo txikitxitik
zapi Te Deum'a abestuten
asi da Azpiazu jauna.*